



## Udazkena udaberrian hasten da

2023ko udazkena urruti dagoela iruditu arren Bizkaian eta Nafarroan jarriak dira urte sasoi horri begira. Izan ere, udazkenean jokatuko dira bi herrialde hauetako Bertsolari Txapelketak. Baina aurretik maiatzean ere izango dituzte lanak bi herrialdeetako bertsolariek. Nafarroan bi aurrekanporaketa izango dira eta Bizkaian Udabarria Bertsotan sailkapen fasea jokatu da maiatzean. Bi herrialdeetan udazkenean jokatu diren txapelketarako txartelak daude jokoan. Bizkaian 13 bertsolarik egingo dute aurrera eta Nafarroan zortzik.

### Udabarria Bertsotan

2023ko udazkenean izango da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, urrian hasi eta abendura bitartean. Aurretik, txapelketara sailkatzeko fasea jokatu da maiatzean: *Udabarria Bertsotan*. Zortzi saio jokatu dira maiatzeko ostegunetan. Ostegun bakoitzean bi saio izango dira, bakoitza herri desberdinetan.

48 bertsolarik eman dute izena fase honetan eta, aipagarria da, Bizkaiko eskualde guztietako partaideak egongo direla. Kopurua kontuan hartuta, sei bertsolariko zortzi saio egingo dira.

Bertsolariek multzo bitan banandu dira: A multzoa eta B multzoa. Multzo bakoitzeko

lau saio jokatu dira, eta puntuazioz sailkatuko dira Bizkaiko Bertsolari Txapelketara. Multzoko 13 bertsolarik egingo dute aurrera gutxienez (Bizkaiko Bertsolari Txapelketako izen ematearen arabera). Udazkeneko fasean sartuko dira zuzenean 2021ean finalurrekoetan eta finalean kantatu zuten bertsolariek.

Talde Antolatzailea udazkenetik ari da saioen prestaketekin lanean eta, urte hasieratik, gai-jartzaile eta epaileak ere lanean ari dira.

Saioei, herriei, ordutegiari zein sarrerei buruzko informazioa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)-en dago eta sarrerak salgai [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian.

### Nafarroako aurre-kanporaketak

Nafarroan ere laster jarriko da martxan txapelketako aurre-kanporaketa fasea. Bi saio izango dira denera, bata Larraunen, maiatzaren 26an, eta bestea Etxaurin, ekainaren 2an. 12 bertsolarik hartuko dute parte bi saio horietan, azken txapelketan parte hartu ez zutenak, eta, saioak osatzeko, baita azken txapelketako sailkapeneko azkenak ere. Horiek denetatik zortzik lortuko dute txapelketarako txartela. Nafarroako Bertsolari Txapelketa urriaren 7an abiatuko da, eta abenduaren 2an bukatu.



Maiatzean jokatu dira Bizkaiko eta Nafarroako txapelketetako sailkapen faseak. //XDZ



**IRATI ALCANTARILLA  
UDAMPILLETA**  
Gabiria, 2023-04-15  
Osinalde Sariko irabazlea

**Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak**

Iparraldeko neskatxa horrek barrenean ze indarra, egia esan iruditzen zait nahiko hegoaldetarra. Mingarriegi iruditzen zait hori onartu beharra; eta mendeku izan daitezen saria ta irrabarra, leku berdina izan artean Hegoa eta Iparra, aldarrikatzen segi dezagun herri bat eta bakarra.

# “Maite duzun zerbait barrutik bizi eta ezagutu ahal izatea irakaspen handi bat izan da”

Apirilaren 1ean bukatu zen Hitzetik Hortzerako denboraldia eta horrekin batera azken bost urtean programaren aurkezle izan den Eider Perezek ere bukatu zituen lanak. 2018-2019 denboraldian ekin zion Eiderrek aurkezle lanei, eta bost denboraldiren agur esan dio saioari. Orain Trintxerpeko aurkezle gazteak bertsoaz beste modu batean gozaten jarraituko du.



Eider Perezek bost denboraldi egin ditu Hitzetik Hortzera aurkezten. //XDZ

## Zer izan da zuretzat Hitzetik Hortzera?

Atzera begiratu eta bost urtetako talde zurrunbilo bat ikusten dut, gogoz aritu naiz eta izugarritzko esperientzia izan da. Antzerkitik eta sormenetik netorren, baina ez nuen inoiz pentsatuko saio bateko aurkezle izango nintzenik.

## Hitzetik Hortzerara iritsi aurretik bertsoarekin ze lotura zenuen?

Beti izan naiz bertsozalea, bertso-eskolan 17 urterekin hasi nintzen Lezon eta bertan bertsoa modu teknikoago batean ikusten hasi nintzen. Garai horretan eman nuen Bertso Udalekuetan izena eta bertso munduarekin lehen kontaktua ere hor eduki nuela esango nuke, nire inguruan ez bainuen zaletasuna zuen inor. Bertso Udalekuei esker hasi nintzen jendea ezagutzen, gozaten eta bertso ingurua egiten eta murgiltzen.

## Baduzu saiorik, momenturik, elkarrizketarik bereziki gogoan?

Alde batetik lan taldearekin bizi izan ditudan momentuak daude, oso momentu onak eta barrez gogoratzen ditudan momentuak izan dira. Elkarrizketatuen aldetik, adibidez, Luzia Goñi eta Inaxi Etxabe elkarrizketatzeko aukera izan nuen, genealogia feministako bi ikur eta hori polita izan zen. Jende desberdin asko elkarrizketatu dugu, tartean garai batean harmailatik ikusten nituen bertsolariak egon dira eta ez nuke jakingo zein aukeratu, denak izan dira bereziak.

## Txapelketa Nagusi bat bizitu duzu Hitzetik Hortzerarekin, zer izan du berezitik horrek?

Hitzetik Hortzerako denboraldi honek bi berezitasun zituen, batetik nire azkena zela eta bestetik Txapelketa Nagusia. Nire ibilbidea ixteko modu bat bezala hartu nuen, gogoz; eta barrutik bizitzea oso desberdina izan da. Maite duzun zerbait barrutik bizi eta ezagutu ahal izatea irakaspen handi bat izan da.

## Hitzetik Hortzera bertsoa baino gehiago da?

Bai, zalantzarik gabe. Bertsoa kulturaren eta artearen parte da eta programaren ardatza bertsoa da, baino kultura dago oinarrian. Gizartearen arte bat da bertsoaritzak, orduan gizarte horretatik pasatzen diren gai askok daukate lotura bertsoarekin. Azken bost urtetan hori bildu du Hitzetik Hortzerak, uste dut horrek ematen diola bizitasuna gure kultur munduari eta programari.

## Orain oholztan ikusiko zaitugu *Mejillon Tigre* proiektuarekin. Zer da?

*Mejillon Tigre* kolektiboa aspaldi sortu zen, nahiz eta orain atera garen argitara. Orain *Hitz Esana* izeneko emanaldiarekin ari gara. Poesia errimatu eta ahoz goratutako diziplina bat da eta gai sozialei buruz hitz egiten dugu. Ez dago bertsoetatik hain urrun, baina ez dago doinurik, dramatizatua da. Oraingo hori ibiliko naiz eta beti kultur munduaren bueltan, bertsoarekin harremanetan jarraituko dut baina beste toki batetik.

# Nafarroako bertsozaritza dokumentatzeko eta ikertzeko hitzarmena **jarriko dute martxan Bertsozale Elkarteak eta Euskarabideak**

**Iaz abiatutako bideari segida emanez, aurten ere bertsozaritzak Nafarroan eragiten duen ondarea biltzeko eta ikertzeko lankidetzari abiatuko dute bi erakundeek. Lehen aldiz, ikerketa lanetarako deialdi bat barnebilduko du hitzarmenak.**

40.000 euroko zuzkidura duen lankidetzari hitzarmena jarriko dute martxan aurki Bertsozale Elkarteak eta Euskarabideak, Nafarroako Euskararen Institutuak. Modu honetan, iaz abiatutako lankidetzari jarraipena emanez, elkarteak ondarea jaso, katalogatu eta publiko orokor zein ikertzaileen esku jartzeko egiten duen urteetako lanak erakundeen aitortza eta finantzaketa jasoko du, bigarren urtez jarraian.

2023. urtean zehar bertsozaritzak Nafarroa uzten duen ondarea biltzera egongo da bideratua hitzarmenaren zati handiena. Bide horretatik, bertso saioren fitxak, agenda, audio zein bideo grabazioak, argazkiak eta kartelak jaso eta dokumentatuko dira, besteak beste. Gainera, bertsoaldien transkripzioak egingo dira, eta bertsoak transkribatzeko formazioak finantziatuko dira. Nafarroako bertsozaritzan eragile diren hainbat pertsonen elkarrizketa sakonak ere aurreikusten ditu hitzarmenak, besteak beste.

Gogoan hartu behar da Nafarroako Gobernuak, 2018. urtean, Kultur Intereseko Ondasun izendatu zuela bertsozaritza, Nafarroako kantu inprobisatuaren adierazpiderik nabarmenentzat aitortuz, eta zaindu eta transmititu beharreko ondare materiagabetzat hartuz. Hitzarmen honek bultzada berri bat emango dio helburu horri, bertsozaritzak urtean zehar

eragiten duen ondarea jasotzeko eta ondare hori biharko belaunaldi zein ikertzaileen esku uzteko oinarritzko bermeak ezarriko dituen heinean.

## Ikerkuntza deialdia

Hitzarmenak, gainera, Nafarroan ematen den (edo eman den) bertsozaritza ikertzeko proiektuen deialdia ere jasoko du. 4.000 euroko diru-laguntza esleituko zaio ikerlari hautatuari, urtebeteko epean proiektua garatu dezan. Edozein jakintza esparru oinarri hartuta ikertu ahalko da Nafarroako bertsozaritza. Gradu amaierako lanak, master amaierako lanak zein bestelako ikerketa proiektu monografikoak aurkeztu daitezke deialdira, beti ere unibertsitateko irakasle doktore batek bermatuta.

Ekainaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira hautagaitzak; [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) aurkitu daitezke eskaera fitxa eta entregatu beharreko dokumentazio guztiaren xehetasunak.

Deialdi honen bitartez, Nafarroako bertsozaritzari buruzko ikerketa eragiteaz gain, ikertzaile gazteak edo hasiberriak lehen urratsak ematen lagundu nahi ditu Bertsozale Elkarteak.



Nafarroa Garaian ematen den bertsozaritza ikertzeko xedea izan beharko dute proiektuek. //XDZ



# Puntua jarrita

TODOR AZURTZA SORRONDEGI

AEBetako mendebalde honetan zer bertso-giro sortzen ari garen galdetzen didazu Urtzi eta punpa lasterlean hemen euskaldun giroa mantendu eta sustatu nahian nabilela esango nizuke.

Boise-ko euskal diasporak gure ohiturak bizirik mantentzen gogotsu dihardu: dantzak, jokoak, musikak, janak, kirolak eta neurri apalagoan hizkuntza. Zuk aitatu duzun bezala, AEBko euskal diaspora honetan euskara dugu galtzaile: euskotar asko dago hemen, baina euskaldun gutxi, euskal hiztunen gehiengo hirurogeita hamar urtetik gorakoa izanik.

Testuinguru honetan, AEBtan bertsolaritzaren presentzia txikia da. Horregatik Bertsolaritzari Arnasa Berritu Amerikan ekimena martxan jarri dugu, bertsolaritza sustatu eta irauarazteko. Bertso eskola sortu dugu (online biltzen gara astero) eta aldiro bertso saioak antolatzen ditugu (azkena San Frantzisko-n, Xabier Euzkitze gurekin bertsotan aritu zelarik: <https://youtu.be/DNelH4xSk>). Hurrengo saioa maiatzean Los Banos-en izango da Euskal Herriko eta bertako bertsolariekin.

Euskara hain gutxi mintzatzen den euskal diaspora honetan bertsolaritza sustatzeak ba al du etorkizunik? Egiten ari garena ez ote da beltzargaren azken kantua bezalako zerbait? Ez dakit egia esan. Bertsolaritzari bultzada emateaz gain, gizarte honetan euskarari esparru bat eskaintzen ari garela esango nuke, gure bertsoetan behintzat AEBtan euskara bizi da eta.

Gure bertso ekimen hau ezinezkoa litzateke Euskal Herriatik jasotzen dugun laguntzarik gabe. Denak aitzeko tokirik ez dudanez, gaurko honetan Ibon Iza eskertu nahi nuke eta hari hurrengo puntua jarri. Ibon; astero-astero aritzen zara gurekin bertsotan online, hain urrun eta hain bertan. Oholtza birtualean ba al dago bertsolarien arteko konplizitatearik? Bertsolaritza lantzeko era egokia iruditzen al zaizu?

# Koplak

## Aitor Sarasua bertsopaper lehiaketa

Bertsularien Lagunak Elkarteak Aitor Sarasua bertso-paper sariketa antolatu du bigarren zeharretan. Martxoan eman ziren sari banaketako irabazleen izenak. Gazte mailan Unax Aizpurua, Goizane Etxeberri, Pagoa Bidart eta Eriet Zubizarretaren sortak izan dira sarituak. Helduen mailan berriz Iñigo Legorburuk irabazi ditu lehen bi sariak eta Manu Goioganak hirugarrena. Sari banaketa apirilaren 23an izan zen Ziburuko Baltsan elkartearen.

# Poto-Finixa



Errimategi automatikoa

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Bazkide kuota

Martxoan egindako Batzar Nagusian, 2023rako bazkide kuotaren igoera onartu zen eta maiatza hasieran kobratuko da. Kuota berria 65 eurokoa izango da norbanakoentzat eta 130 eurokoa elkarte edo erakundeentzat. 2018an egin zen azken igoera eta aurtengoan beste igoera bat egiteko unea zela baloratu da.



**Lanku**  
Lanku Zentroa

# ANON YME POP ULAR

Kontrataziorako [marketina@lanku.eus](mailto:marketina@lanku.eus) helbidera idatzi edo **675.716.472** telefonora deitu

PUBLIZTATEA